# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 662

*EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren deialdia. Agindu hartan, dirulaguntza batzuen oinarri arautzaileak ezarri eta horien deialdia egiten da, garapen jasangarriko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate, beste toki-entitate, tokiko erakunde autonomo, tokiko garapen-agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzenduta.*

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Agindu bidez, 2020ko ekitaldirako dirulaguntza batzuetarako deialdia egin zen, garapen jasangarriko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate, beste toki-entitate, tokiko erakunde autonomo, tokiko garapen-agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzenduta. Aipatutako agindua 2020ko uztailaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (150. zenbakia) argitaratu zen.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko irailaren 22an amaitu zen, eta guztira 199 eskabide jaso ziren Ingurumen Sailburuordetzako egoitza elektronikoan.

Organo Ebaluatzaileak, berariaz horretarako eratuta eta 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 14. artikuluarekin bat etorrita, dirulaguntza jasotzeko eskabideak aztertu eta ebaluatu ditu, eta dagokion ebazpen-proposamena egin du. Ebazpen-proposamen horretan dago zehaztuta, esleipen-irizpideak betez eta aurrekontu-mugak gainditu gabe, aginduaren arabera zein proiektu diren dirulaguntza jasotzeko modukoak eta zenbateko dirulaguntza jaso dezaketen, bai eta zein proiektu ezetsi diren eta zergatik ere.

2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 3.2 artikuluak ezartzen duenaren arabera, aipatutako jarduera-ildoren baterako esleitutako zenbatekoa agortzen ez bada (ez delako eskabide nahikorik aurkeztu edo aurkeztutako eskabideek ez dituztelako baldintzak bete), beste jarduera-ildo baterako esleitutako zenbatekoari gehitu ahal izango zaio, betiere organo ebaluatzaileak horretarako egiten duen proposamenarekin bat etorrita.

Lurzoru Kutsatuen, Natura Ondarearen eta Ekonomia Zirkularraren lerroetan, ez da agortu hasieran aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura, eta, ondorioz, Organo Ebaluatzaileak erabaki du soberakin hori erabiltzea Klima Aldaketaren lerroaren aurrekontu-zuzkidura handitzeko.

Aurrekontu-zuzkidura doitu ostean, aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago diruz lagundu daitezkeen proiektu guztien zenbatekoa diruz laguntzeko.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera (agindu horrek arautzen ditu dirulaguntzak), dokumentuak aurkezteko eskaera egin zaie 10. artikuluan zehaztuta dauden dokumentuak aurkeztu ez dituzten erakundeei, edo 2.2 artikuluko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ez dutenei, edo aginduan ezarritako beste edozein gorabeheraren baitan daudenei. Amaitu da dokumentazioan eginiko hutsak zuzentzeko epea, eta ez da eskatutako dokumentaziorik aurkeztu; hortaz, ulertzen da II. eranskinean agertzen diren erakundeek atzera egin dutela eskaeran.

Ingurumeneko sailburuak eskumena du behin betiko erabakitzeko nori eman dirulaguntza eta zenbateko dirulaguntza eman, 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Deialdia egiten duen Aginduaren 16. artikuluaren arabera, bertan araututako laguntzak, jasangarritasunerako hezkuntzaren lerrokoak izan ezik, norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan.

Honako arau hauek aztertu dira: 2020ko uztailaren 21eko Agindua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez 2020ko ekitaldirako dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta horien deialdia egiten baita, garapen jasangarriko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate, beste toki-entitate, tokiko erakunde autonomo, tokiko garapen-agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzenduta; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har aplikatu beharreko gainerako arauak. Horiek guztiak azterturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Dirulaguntza ematea ebazpen honen I. eranskinean adierazitako erakundeei, bertan zehazten diren proiektuetarako eta zenbatekoetan.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean argitaratzea ezetsitako dirulaguntza-eskabideen zerrenda.

Hirugarrena.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 17.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, ebazpen honen III. eranskinean jasotako erakundeei dirulaguntzarik ez ematea, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen honen bidez ematen diren dirulaguntzen zenbatekoaren lehen ordainketa egiteko agintzea, ebazpenaren I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde onuradunei.

Dirulaguntzaren ondorengo ordainketak egiteko, onuradunak agiri bidez egiaztatu beharko du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 22. eta 23. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Onuradunek, era berean, bete egin beharko dituzte aginduaren 19. artikuluan adierazitako gainerako betebeharrak.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, interesdunei jakitera ematearren –hala egin behar baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 17.1 artikuluaren arabera–, eta dirulaguntzak emateko prozedura orok izan behar duen publizitate-printzipioa betetzearren.

Seigarrena.– Baldintza-orriak banan-banan denei jakinaraz dakien agintzea, diruz lagundutako proiektuak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko Aginduaren 18. artikuluaren arabera gauza daitezen.

Zazpigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
AMAIA BARREDO MARTÍN.

# I. ERANSKINA
## EMANDAKO LAGUNTZAK

LURZORU KUTSATUEN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 001-SUE-2020 | Sopelako Udala | Saneamendu-jarduketak Sopelan (Bizkaia) dagoen 48085-00001 kokalekuan | 63 | 31.704,89 |
| 002-SUE-2020 | Legazpiko Udala | 20051-00055 Kokalekua: 2020-2021 Ur kontrola | 63,5 | 4.949,50 |
| 003-SUE-2020 | Barakaldoko Udala | Gorostizako zabortegi zaharreko (Tellaetxe-Barakaldo) berreskuratutako eta zigilatutako eremuaren ingurumen-kontrola eta -jarraipena. Itxi ondorengo 5. urtea | 69,5 | 11.401,69 |
| 004-SUE-2020 | Muskizko Udala | Pobeña zabortegi zaharraren kokalekuko lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketa | 56,5 | 2.014,00 |
| 005-SUE-2020 | Irungo Udala | Palmera Monteroko Gizarte Etxean lurzorua berreskuratzeko proiektua | 74,5 | 55.323,00 |
| 006-SUE-2020 | Zizurkilgo Udala | Zizurkilgo Lizaraingo garai bateko zerrategiaren ondoko lursailen miaketazko ikerketa | 54 | 25.821,00 |
| 007-SUE-2020 | Lezoko Udala | Lezoko Makurren 107. poligonoko lurzoruaren kalitateari buruzko ikerlana | 50,5 | 14.190,15 |
| 008-SUE-2020 | Olaberriko Udala | Olaberriko Barruti auzoan dagoen udal tiro-eremuaren jarduerak kutsatutako lurzoruak berreskuratzea | 59,5 | 42.775,65 |
| 011-SUE-2020 | Aretxabaletako Udala | Piezometroak birjartzea eta uren kontrol analitikoa (20013-00024) | 56,5 | 10.075,35 |
| 012-SUE-2020 | Amurrioko Udala | Amurrioko Larrabe zabortegia ixteko likidazioa, zigilatzea eta ingurumen-jarraipena egitea | 60,5 | 80.624,13 |
| 014-SUE-2020 | Abanto Zierbenako Udala | Tiro-eremuaren inguruko arriskuen analisia eta indusketa-plana. | 51 | 7.030,00 |
| 015-SUE-2020 | Donostiako Udala | Donostiako leku artifizializatu hutsen inbentarioa | 83 | 13.500,00 |
| 016-SUE-2020 | Urduñako Udala | Urduñako Los Milanos zabortegia berreskuratzeko proiektuaren ingurumen-zaintza itxi ondorengo programaren urteko kontrola. | 55 | 8.602,24 |
| 017-SUE-2020 | Donostiako Udala | Amiantoz kutsatutako lurzorua lehengoratzea Marrus Bideko eremuan | 67,5 | 115.193,05 |
| 018-SUE-2020 | Soraluzeko Udala | Plan orokorreko «A.U.Kanoiak» izeneko arearen «lurzoruaren kalitate azterketa» | 62,5 | 11.376,66 |
| 019-SUE-2020 | Asparrenako Udala | Ajuria eta Urigoitia fabrikako industria-aurria den ingurunetik hondakin arriskutsuak kentzea. III. fasea. Fibrozementuzko plakak kentzea | 82 | 61.275,00 |
| 020-SUE-2020 | Pasaiako Udala | PCBek eta beste laginketa-jarduketa batzuek eragindako lurzoruaren mugaketa, Molinaoko Erribera | 69 | 14.168,92 |
| 021-SUE-2020 | Getxoko Udala | Bolue ingurunea desgasifikatzeko proiektuarekin lotutako lanak. Inbentarioaren kodea: 48044-00023 eta 48044-00024 | 64,5 | 33.460,05 |
| 024-SUE-2020 | Eako Udala | Ea udalerriko (Bizkaia) Bidebarrieta kaleko paper-fabrikako lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehatua | 57 | 6.459,05 |

KLIMA-ALDAKETAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 001-KLI-2020 | Oreindaingo Udala | Orendainen karbono hustuleku gaitasuna hobetzeko proiektua | 88 | 25.704,80 |
| 004-KLI-2020 | Gernika-Lumoko Udala | Klima-aldaketa apaltzeko eta hartara egokitzeko Gernika-Lumoko plan integratua | 94 | 12.080,00 |
| 005-KLI-2020 | Urkabustaizko Udala | Urkabustaizen klima-aldaketara egokitzeko eta energia-eredu jasangarria sustatzeko plana egiteko proiektua | 81 | 11.992,00 |
| 007-KLI-2020 | Errigoitiko Udala | Ohitura-jardunbide desegokien eraginez lursailek galdu duten CO2 xurgatzeko gaitasuna lehengoratzea, kontserbaziorako balio handiko baso-sartze eredua eta naturan oinarritutako konponbideak ezarriz. | 84 | 13.360,00 |
| 009-KLI-2020 | Ibarrangeluko Udala | Mugikortasun jasangarria eta irisgarritasuna Arboliz auzoan | 68 | 80.000,00 |
| 012-KLI-2020 | Eibarko Udala | Klimarako eta Energia Jasangarrirako Eibarko Ekintza Plana (Apaltzea eta Egokitzea) | 80 | 14.876,04 |
| 013-KLI-2020 | Kintanako Administrazio-Batzarra | Mugikortasun jasangarria sustatzea, Arabako Bernedo udalerriko Kinta herrian aldiriko aparkalekua eraikita | 73 | 19.999,69 |
| 015-KLI-2020 | Zigoitiako Udala | Udal-ibilgailu elektrikoa eskuratzea | 63 | 4.000,00 |
| 017-KLI-2020 | Bakioko Udala | Baso autoktonoa basoberritzea eta lehengoratzea klima-aldaketari aurre egiteko | 90 | 23.289,50 |
| 018-KLI-2020 | Irungo Udala | Klima-aldaketa apaltzeko eta hartara egokitzeko Irungo plan integratua egitea (Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana) | 100 | 15.000,00 |
| 019-KLI-2020 | Etxebarriako Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko Plan Integratua | 83 | 11.200,00 |
| 020-KLI-2020 | Ziortza-Bolibarko Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko plan integratua Ziortza-Bolibarren | 81 | 10.400,00 |
| 021-KLI-2020 | Getariako Udala | Getariako Klima eta Energia Plan integrala | 81 | 13.223,20 |
| 022-KLI-2020 | Lasarte-Oriako Udala | Energia eta Klimarako Lasarte-Oriako Plana | 75 | 11.570,00 |
| 023-KLI-2020 | Markina-Xemeingo Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko Plan integratua Markina-Xemeinen | 84 | 11.920,00 |
| 024-KLI-2020 | Aulestiko Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko plan integratua Aulestin | 82 | 10.400,00 |
| 026-KLI-2020 | Mendatako Udala | Mendata, Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko Plan Integrala | 83 | 11.200,00 |
| 027-KLI-2020 | Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, S.L. | Klima-aldaketa apaltzeko eta hartara egokitzeko plan integratua. Klima eta Energiarako Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko Plana | 85 | 15.000,00 |
| 028-KLI-2020 | Artziniegako Udala | Artziniegako Udaleko brigadarentzako triziklo elektrikoa erostea | 64 | 3.600,00 |
| 030-KLI-2020 | Nabarnizko Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko plan integratua Nabarnizen | 78 | 10.400,00 |
| 032-KLI-2020 | Arrasateko Udala | Etxaluze-Maala Ekobulebar exekuzio proiektua | 82 | 80.000,00 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 033-KLI-2020 | Oñatiko Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta egokitzeko Oñatiko plan integratua | 80 | 13.570,00 |
| 034-KLI-2020 | Gordexolako Udala | Gordexolako Molinar eremuko aldiriko aparkalekua zehaztea | 65 | 6.596,82 |
| 035-KLI-2020 | Zaratamoko Udala | Oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea egitea Arrigorriagako pasabidearen eta Ugarte 1 eta 2 industrialdeen artean / 2. fasea | 71 | 59.468,67 |
| 036-KLI-2020 | Donostia Sustapena | Etxezuriko langileen in itinere joan-etorriak optimizatzeko proiektu pilotua | 79 | 4.000,00 |
| 037-KLI-2020 | Dulantziko Udala | Eskola- eta kirol-eremua bidegorriaren bidez lotzea | 71 | 32.807,78 |
| 038-KLI-2020 | Arraia-Maeztuko Udala | Mugikortasun jasangarria sustatzea, Igoroinen (Arraia-Maeztu) aldiriko aparkalekua eraikita | 79 | 4.574,90 |
| 039-KLI-2020 | Donostiako Udala | San Bartolome horma naturizatzeko lanak, Donostian | 77 | 15.000,00 |
| 040-KLI-2020 | Munitibar -Arbatzegi Gerrikaitz-Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko Plan Integratua Munitibarren | 84 | 11.200,00 |
| 043-KLI-2020 | Arakaldoko Udala | Bidegorri berria egitea Arakaldon | 65 | 80.000,00 |
| 044-KLI-2020 | Getxoko Udala | Getxoren eta Sopela eta Berango udalerrien arteko lotura hobetzea, Uribe Kostako korridorearen ardatz egituratzailearen bidez | 71 | 19.975,00 |
| 045-KLI-2020 | Amurrioko Udala | Aresketa Ikastola eta Zaraobe Institutua Amurrioko hirigunearekin lotzeko bidegorria | 70 | 80.000,00 |
| 046-KLI-2020 | Kanpezuko Udala | Mugikortasun jasangarria sustatzea, Kanpezun kargaleku bat instalatuta eta ibilgailu elektrikoen erabilera sustatuta | 63 | 4.000,00 |
| 047-KLI-2020 | Berrizko Udala | Berriz - Klima-aldaketa 2020 | 84 | 53.162,41 |
| 048-KLI-2020 | Arratzuko Udala | Arratzuko Loiola eta Uarka arteko bidegorria amaitzeko eta lotzeko proiektua | 72 | 72.469,23 |
| 049-KLI-2020 | Enkarterriko Mankomunitatea | Ibilgailu elektrikoa | 64 | 4.000,00 |
| 050-KLI-2020 | Muxikako Udala | Astelarrako landaguneko lotura ekologikoa hobetzea, CO2 isuri atmosferikoak murrizteko | 60 | 80.000,00 |
| 053-KLI-2020 | Pasaiako Udala | Klima-aldaketa apaltzeko eta hartara egokitzeko plan integratua egitea - Klima eta Energiarako Pasaiako Plana | 86 | 15.000,00 |
| 054-KLI-2020 | Aguraingo Udala | Aldiriko aparkalekua egitea eskola-eremuan | 69 | 48.965,57 |
| 055-KLI-2020 | Bastidako Udala | Ikastola ondoko lurzatia egokitzea, aldiriko aparkalekurako | 53 | 27.960,00 |
| 056-KLI-2020 | Asparrenako Udala | Zirauntzaleko ibai-pasealekua: 4. zatia: uholde-lautada kontrolatua sortzea sarbideetan, eta erabiltzen ez den udal orubea berreskuratzea herriko parke/zuhaizti gisa | 77 | 80.000,00 |
| 057-KLI-2020 | Laukizko Udala | Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko plan integratua Laukizen | 84 | 11.200,00 |
| 058-KLI-2020 | Adunako Udala | Klima-aldaketara egokitzeko eta naturaz gozatzeko baliabide aktiboa sortzea Adunako herrigunean | 75 | 80.000,00 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 059-KLI-2020 | Igorreko Udala | Urkizu auzotik doan bidegorria egokitzea | 71 | 14.256,00 |
| 062-KLI-2020 | Arrankudiagako Udala | Baso-sartzea Pagobakarran (Arrankudiaga) | 84 | 11.547,54 |
| 064-KLI-2020 | Bilarko Udala | Klima-aldaketara egokitzeko eta hura apaltzeko Bilarko plan integratua | 82 | 10.000,00 |
| 065-KLI-2020 | Soraluzeko Udala | Soraluzeko basotze-lanak, berriz basotzeko lanak eta basoa kudeatzeko plana | 83 | 37.080,00 |
| 067-KLI-2020 | Bilboko Udala | Bizikleta-konexioa udaletxeko zubitik | 76 | 80.000,00 |
| 068-KLI-2020 | Eako Udala | Urtubiagako industria-aurria den eremua birgaitzea. Aldiriko aparkalekua egitea eta Bidegorriarekin lotzea. I. fasea | 71 | 73.008,42 |
| 069-KLI-2020 | Sestao Berri 2010, S.A. | Klima eta Energia Jasangarrirako Sestaoko Ekintza Plana | 78 | 7.475,00 |

NATURA-ONDAREAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 001-NAT-2020 | Barrikako Udala | Honako eremu hauen interes geologikoa babestea, kontserbatzea eta balioa azpimarratzea: Barrikako kostaldea-Kurtziomendi zatia-Barrikako hondartza-flyscha | 71 | 75.000,00 |
| 002-NAT-2020 | Dulantziko Udala | Dulantziko hiri-harrapariak berreskuratzeko plana | 59 | 1.753,70 |
| 003-NAT-2020 | Itsasoko Udala | Itsasoko natura-ondarearen berreskupenaren 2. fasea | 57 | 35.528,96 |
| 005-NAT-2020 | Oteoko Administrazio-Batzarra | Oteoko Administrazio Batzarreko (Araba) Arabarren Bideko urmaela hobetzea | 79 | 4.845,00 |
| 006-NAT-2020 | Hondarribiko Udala | Bertako basoa berreskuratzea eta arriestuetako iturria leheneratzea Jaizkibelen | 77 | 10.825,50 |
| 007-NAT-2020 | Azpeitiko Udala | Ibai Eder eta Errezil ibaien garbiketa-kanpaina Azpeitian 2020 | 60 | 7.579,14 |
| 011-NAT-2020 | Apinaizko Administrazio-Batzarra | Apilaizen, Izkiko Parke Naturalean, gaztainondoen tokiko barietateak berreskuratzea, kontserbatzea eta landatzea | 78 | 13.721,59 |
| 012-NAT-2020 | Villabonako Udala | Eskuiturriaga parajean (Amasa-Villabonan) putzu-sare bat egokitzeko prioektua | 61 | 5.168,79 |
| 013-NAT-2020 | Ataungo Udala | Ataungo herri mendietako habitatak berreskuratzeko lanak Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) | 79 | 30.217,60 |
| 014-NAT-2020 | Itsasondoko Udala | Murumendiko basoak berreskuratu eta beraien egoera ekologikoa hobetzeko ekimenak | 66 | 24.196,50 |
| 015-NAT-2020 | Gordexolako Udala | Herrerias ibaiaren inguruko ingurumena (Ponto-Urarte) lehengoratzeko eta landareztatzeko proiektua. | 51 | 17.979,70 |
| 016-NAT-2020 | Irurako Udala | Iruran, Oria ibaiaren eta Malaka errekaren garbiketa lanak | 73 | 5.140,84 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 017-NAT-2020 | Moreda Arabako Udala | Hontz arruntaren (Tyto alba) populazioa kontserbatzeko neurriak Moreda Araban | 50 | 1.030,75 |
| 018-NAT-2020 | Alkizako Udala | Hernio-Gazume KBEn faunaren eta baso-habitaten kontserbazio-egoera hobetzeko lanak | 66 | 71.250,00 |
| 020-NAT-2020 | Berrizko Udala | Berrizko Udala - Ondare naturala | 61 | 63.889,22 |
| 022-NAT-2020 | Gautegiz Arteagako Udala | 15. IGT Ereñoko kareharri gorriaren (Kantera Gorria) eta Erdigunearen ingurumena hobetzea eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako kantauriar artadien gunea babestea | 74 | 71.206,18 |
| 024-NAT-2020 | Zallako Udala | Eguen, biodibertsitatea eta erabilera publiko jasangarria | 50 | 17.934,60 |
| 025-NAT-2020 | Asparrenako Udala | Zirauntza eta Eginor ibaietako ibaiertzetako eta ibilguetako hondakinak garbitzea Asparrenan | 64 | 8.559,50 |
| 028-NAT-2020 | Barrundiako Udala | Andramaria errekaren bidez KBEn arteko konektibitate ekologikoa hobetzeko proiektua | 50 | 1.183,70 |
| 029-NAT-2020 | Enirio-Aralarko Mankomunitatea | Enirio Aralar Mankomunitateko lurretan natura-ondarearen Berreskurapen/Lehengoratze lanak | 80 | 22.789,65 |
| 030-NAT-2020 | Gernika-Lumoko Udala | Ingurumen-hobekuntzako jarduketak Gernika-Lumoko sare berde-urdinean: «Biodibertsitatea Santa Luziako espazio berde-urdinetan» | 58 | 17.625,75 |
| 033-NAT-2020 | Donostiako Udala | Oberanen espezie autoktonoak birpopulatzea eta mantentzea | 65 | 69.975,00 |
| 034-NAT-2020 | Zaldibiako Udala | Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE), Zaldibiako udalerrian dauden baso habitaten lehengoratze lanak | 60 | 11.377,20 |
| 036-NAT-2020 | Soraluzeko Udala | Iñazibar inguruko erriberaren habitat naturala kontserbatzeko planaren idazketa (aurrez eskuratutako lursaila) | 50 | 9.421,48 |
| 038-NAT-2020 | Urturiko Administrazio-Batzarra | Putzuko iturburu zaharrak berreskuratzea | 51 | 27.471,15 |
| 039-NAT-2020 | Eako Udala | Agiñerreka - Urtubiaga urtegiaren ingurunea lehengoratzea. II. fasea | 55 | 29.394,90 |
| 040-NAT-2020 | Amurrioko Udala | Amurrioko paisaiaren Ekintza Planeko ekintzak, ingurumen-ikuspegitik lehengoratzeko, biodibertsitatea sustatzeko eta konektibitate ekologikorako. | 51 | 24.160,50 |
| 041-NAT-2020 | Amurrioko Udala | Sasinebaso lehengoratzea eta haren balioa azpimarratzea | 54 | 36.268,85 |

EKONOMIA ZIRKULARRAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 001-EKZ-2020 | Urkabustaizko Udala | Hondakinen frakzio organikoaren kudeaketa Urkabustaizen 2020-21 | 70 | 3.000,00 |
| 003-EKZ-2020 | Muskizko Udala | Konposta egiteko udal-fabrika | 65,5 | 25.000,00 |
| 004-EKZ-2020 | Berastegiko Udala | Auzo konpost gunea handitzea Ategi tabernako hondakin organikoak kudeatzeko | 55,5 | 698,25 |
| 006-EKZ-2020 | Aiarako kuadrila | Errefuserako eta materia organikorako edukiontziak erabiltzeko kontrol-sistema ezartzea | 87 | 25.000,00 |
| 007-EKZ-2020 | Itsasondoko Udala | Itsasondon ezarritako komunitateko konpostaje-instalazioetan lortutako konpostaren patogenoak kontrolatzea | 75 | 2.329,28 |
| 008-EKZ-2020 | Errigoitiko Udala | Fibrozementuaren inbentarioa Errigoitiko udalerrian | 54 | 8.170,00 |
| 010-EKZ-2020 | Donostiako Udala | Turismo-ostatu jasangarriak | 66,5 | 23.560,00 |
| 011-EKZ-2020 | Bakioko Udala | Hondakin solidoak prebenitzeko eta kudeatzeko tokiko plan integralaren azterketa eta diseinua, udalerrian ekonomia zirkularra sustatzeko | 59 | 23.750,00 |
| 012-EKZ-2020 | Txorierriko Mankomunitatea | PAYT sistema ezartzea Zamudion: enpresei edukiontziak ematea | 69 | 25.000,00 |
| 013-EKZ-2020 | Amurrioko Udala | Hondakinen ordenantza fiskala egitea, ekonomia zirkularreko irizpideekin eta sortzen diren hondakinen araberako ordainketa-sistemen pilotajearekin | 77 | 25.000,00 |
| 015-EKZ-2020 | Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa | Organikoa 5. edukiontzi bidez eta gainerako hondakinak ere sailkatuta biltzeko sistema-proiektuaren barruan, pisatze-sistema eskuratzeko laguntza | 76 | 20.754,84 |
| 016-EKZ-2020 | Txingudiko Zerbitzuak, S.A. | Hondakin-sortzaile handiek materia organikoa gaika biltzeko sistemak 2021 | 59 | 10.320,00 |
| 018-EKZ-2020 | Ermuko Udala | Ermuko udalerrian ekonomia zirkularra sustatzea | 51 | 11.760,00 |
| 019-EKZ-2020 | Vitoria-Gasteizko Udala | Vitoria-Gasteizko industrialdeetan etxeko hondakinekin parekatu daitezkeen hondakinen eskaria eta gaikako bilketarako aukerak aztertzea, sortzen diren hondakinen araberako ordainketa-sistemen ikuspegia kontuan hartuta | 71,5 | 20.000,00 |
| 020-EKZ-2020 | Ataungo Udala | LURLAB Ekonomia zirkularrerako landa eremuko makerspace sarea. | 51,5 | 10.900,64 |
| 021-EKZ-2020 | Adunako Udala | Adunako udalerrian ekonomia zirkularra sustatzea | 72,5 | 14.250,00 |
| 022-EKZ-2020 | Maruri-Jatabeko Udala | Ura ona: berriro ura erabiliz | 68 | 16.832,70 |
| 023-EKZ-2020 | Eibarko Udala | Eibarko udalerrian ekonomia zirkularra sustatzea | 57,5 | 19.760,00 |
| 024-EKZ-2020 | Soraluzeko Udala | Konpostaje Komunitarioko Instalazioen Segimendua eta Kontrola | 69,5 | 2.280,00 |
| 025-EKZ-2020 | Tolosaldea Garatzen, S.A. | Begurpilgunea: berreskuratutako bizikletak konpondu eta biziberritzeko gunea | 56,5 | 25.000,00 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|---|
| 026-EKZ-2020 | Asparrenako Udala | Asparrena eta Donemiliaga udalerrietako hondakin-sortzaile handien jarduerak sortutako materia organikoa gaika biltzeko sistema, tratamendu biologikorako | 74 | 25.000,00 |
| 027-EKZ-2020 | Aramaioko Udala | Konpostaje guneak hobetu eta mantentzeko proiektua | 78 | 3.000,00 |

JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|
| 001-EDU-2020 | Portugaleteko Udala | 2020. Jasangarritasunaren aldeko Hezkuntza – Toki-erakundeetarako laguntzak | 8.250,00 |
| 002-EDU-2020 | Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI - CEA) | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 egitasmoen koordinazioa: Vitoria-Gasteizko Eskolako Agenda 21, 2020-2021 ikasturtea: Klimaren aldeko ekintza | 11.085,00 |
| 003-EDU-2020 | Laudioko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 2030 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 5.833,86 |
| 004-EDU-2020 | Abanto Zierbenako Udala | Ikastetxeak koordinatzea Eskolako Agenda 21 ezartzeko, Abanto Zierbenako Tokiko Agenda 21ekin koordinatuta. | 1.695,00 |
| 005-EDU-2020 | Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal, S.L. | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea Arrigorriagan, Etxebarrin, Galdakaon eta Ugao-Miraballesen. 2020-2021 ikasturtea | 7.500,00 |
| 006-EDU-2020 | Uribe Kostako Udal Elkartea | EA21 eta TA21 koordinazioa | 4.115,00 |
| 007-EDU-2020 | Trapagarango Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 3.347,50 |
| 008-EDU-2020 | Bergarako Udala | Eskola Agenda 2030 kudeatzeko dirulaguntza | 4.005,90 |
| 009-EDU-2020 | Azpeitiko Udala | Ekoizpen eta kontsumo jasangarriak | 7.825,00 |
| 010-EDU-2020 | Hernaniko Udala | Eskolako 2030 Agenda (2020-2021) | 6.250,00 |
| 011-EDU-2020 | Debegesa | Debabarreneko Eskola Agenda (2020-2021) | 13.231,26 |
| 012-EDU-2020 | Amorebieta-Etxanoko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea- 2020-2021 ikasturtea- | 8.600,00 |
| 013-EDU-2020 | Donostiako Udala | Eskola Agenda 2020-2021 | 16.000,00 |
| 014-EDU-2020 | Muskizko Udala | Eskolako Agenda 21. Jasangaritasuna Muskiz | 5.580,00 |
| 015-EDU-2020 | Amurrioko Udala | Eskolako Agenda 2030 Amurrion, 2020-2021 ikasturtea: Klimaren aldeko ekintza | 7.000,00 |
| 016-EDU-2020 | Hondarribiko Udala | 2020-2021 Ikasturtean Hondarribiko Eskolako Agenda 2030 dinamizatzeko proposamena | 12.500,00 |
| 017-EDU-2020 | Oiartzungo Udala | 2020-2021 Ikasturtean Oiartzungo Eskola Agenda 2030 dinamizatzeko aholkularitza zerbitzua | 5.100,00 |
| 018-EDU-2020 | Oñatiko Udala | Oñatiko Eskolako Agenda 2030 programa didaktikoa 2020-2021 ikasturtean bideratzeko aholkularitza | 4.107,10 |
| 019-EDU-2020 | Lezoko Udala | Lezoko Eskolako Agenda 21 hezkuntza-programa garatzea 2020-2021 ikasturtean: Klima-aldaketa eta basoak | 3.296,00 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (euro) |
|---|---|---|---|
| 020-EDU-2020 | Errenteriako Udala | Errenteriako Tokiko Agenda 21 eta Eskola Agenda 21 koordinatzea 2020-2021 ikasturtean | 10.250,00 |
| 021-EDU-2020 | Ermuko Udala | Ingurumen-hezkuntzako tailerrak ematea Ermuko udalerriko ikastetxeetan | 6.942,15 |
| 022-EDU-2020 | Bilboko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 16.000,00 |
| 023-EDU-2020 | Ataungo Udala | Eskola Agenda 20-30 koordinatzea (2020-2021 ikasturtea) | 700,00 |
| 024-EDU-2020 | Ordiziako Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 2030 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 3.250,00 |
| 025-EDU-2020 | Mungiako Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea | 13.735,05 |
| 026-EDU-2020 | Urnietako Udala | Urnietako Eskolako Agenda 21 prozesua dinamizatzeko laguntza teknikoa | 3.958,50 |
| 027-EDU-2020 | Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa | Durangaldeko Garapen Jasangarriko Helburuak. Eskola Agenda 2020-2021 | 3.925,00 |
| 028-EDU-2020 | Aiarako Udala | Eskolako Agenda 2030 | 1.185,00 |
| 029-EDU-2020 | Irungo Udala | Eskola Agenda 2030 eta Tokiko Agenda 21en arteko koordinazioa. 2020-2021 ikasturtea. | 8.612,50 |
| 030-EDU-2020 | Aiarako kuadrila | Eskualdeko Eskolako Agenda 2030 | 3.815,00 |
| 031-EDU-2020 | Beasaingo Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 2030 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 3.500,00 |
| 032-EDU-2020 | Idiazabalgo Udala | Eskola agenda 2030 koordinatzea (2020-2021 ikasturtea) | 700,00 |
| 033-EDU-2020 | Azkoitiko Udala | Tokiko 2030 Agenda eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea: Basoak ernatzen proiektua | 9.000,00 |
| 034-EDU-2020 | Basauriko Udala | Eskolako Agenda 2030, 2020-2021 ikasturtea | 8.394,22 |
| 035-EDU-2020 | Andoaingo Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda koordinatzea. 2020-2021 ikasturtea | 9.375,00 |
| 036-EDU-2020 | Itsasondoko Udala | Eskolako Agenda 2030, 2020-2021 ikasturtea | 666,00 |
| 037-EDU-2020 | Tolosako Udala | 2020-2021 ikasturtea EA21en eta EA 2030en arteko trantsizioa «Ikastetxe iraunkorra herri iraunkorrean» | 16.000,00 |
| 038-EDU-2020 | Arratiako Udalen Mankomunitatea | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 6.600,00 |
| 040-EDU-2020 | Getxoko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 16.000,00 |
| 041-EDU-2020 | Tolosaldea Garatzen, S.A. | Tolosaldeko Eskola Agenda 2030 | 12.548,00 |
| 042-EDU-2020 | Leioako Udala | Tokiko Agenda 21 edo Tokiko Agenda 2030 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 16.000,00 |
| 043-EDU-2020 | Lazkaoko Udala | Lazkaoko Eskolako 2030 Agenda. 2020-2021 ikasturtea | 2.365,00 |
| 044-EDU-2020 | Barakaldoko Udala | Tokiko Agenda 21 edo Agenda 2030 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2020-2021 ikasturtea | 7.105,50 |
| 046-EDU-2020 | UGGASA, Urola Garaiko Garapenerako Agentzia, S.A. | Eskola Agenda 2030 Legazpi, Urretxu, Zumarraga | 7.378,35 |
| 047-EDU-2020 | Aretxabaletako Udala | Ikastetxe iraunkor bat herri iraunkor batean | 3.405,90 |

# II. ERANSKINA

## ATZERA EGINDAKO LAGUNTZA-ESKAERAK

KLIMA-ALDAKETAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua |
|---|---|---|
| 002-KLI-2020 | Elantxobeko Udala | Bermokiz Elantxobe aldiriko aparkalekua |
| 006-KLI-2020 | Muskizko Udala | Ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi gune jartzea |

# III. ERANSKINA

## UKATUTAKO LAGUNTZAK

### LURZORU KUTSATUEN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 009-SUE-2020 | Oñatiko Udala | Urrutxuko zabortegiko zigilatze osteko 2021eko ingurumen jarraipena | Ez du betetzen aginduaren 2.2.a) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 010-SUE-2020 | Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea | Elgoibarko Urruzunoko industria-hondakin geldoen zabortegia ixteko eta ingurumen-ikuspegitik lehengoratzeko egikaritze-proiektu bategina | Ez du betetzen aginduaren 2.2.a) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 022-SUE-2020 | Getxoko Udala | Getxoko hiri-hondakin solidoen zabortegi zaharrean gasak eta lixibiatuak tratatzeko erabilitako eremuan dagoen aldagelen eraikina desgasifikatzeko proiektuari dagozkion obrak egitea | 7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuen mugak. |

### KLIMA-ALDAKETAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 008-KLI-2020 | Errigoitiko Udala | Uria auzoaren ondoan aldiriko aparkalekua egiteko proposamena | 7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuen mugak. |
| 011-KLI-2020 | Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea | Berotegi-efektuko gas gutxiago jariatzea Debabarreneko landa-eremuko hondakinen bilketa digitalizatuta | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 014-KLI-2020 | Zeberioko Udala | Biomasaren galdarak jartzea | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 016-KLI-2020 | Astigarragako Udala | Baserritarrek postua jartzeko estalpea, komuna eta aldagelak egiteko aurreazterketa idaztea | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 041-KLI-2020 | Lasarte-Oriako Udala | Sasoeta-Zumaburu LHIko ikasgela-eraikinaren (Sasoeta eraikina) birgaitze energetikoa | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 042-KLI-2020 | Lasarte-Oriako Udala | Udal-zerbitzuei ibilgailu elektrikoa ematea | 7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuen mugak. |
| 051-KLI-2020 | Irungo Udala | Bidegorri berria egitea Puiana-Ospitalea zatian | 7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuen mugak eta Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua – Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 052-KLI-2020 | Itsasoko Udala | Itsasoko Alegi auzoan bidegorri proiektua | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 060-KLI-2020 | Munitibar - Arbatzegi Gerrikaitz Udala | Bengola parkeko pasarela | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 061-KLI-2020 | Igorreko Udala | Ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak instalatzea Gabolan aparkalekuan | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 063-KLI-2020 | Eako Udala | Ean baso-plangintza egitea, klima-aldaketa apaltzeko eta hartara egokitzeko. Ea 2030 KN karbono-hustulekuen antolamendua | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 066-KLI-2020 | Oñatiko Udala | Torreauzoko bidegurutzeko industriaguneetan oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko eta autobus geltokia jartzeko lanak | 7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuen mugak. |

NATURA-ONDAREAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 004-NAT-2020 | Ordiziako Udala | Ordizian, Oianguko basoak hobetzea | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 008-NAT-2020 | Mutiloako Udala | Troi-Gezurmuño meatze-inguruko biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen lehengoratze ekologikorako proiektua | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 009-NAT-2020 | Durangoko Udala | San Rokeko ingurumen- eta paisaia-egokitzapenerako proiektua. Durango | Ez du betetzen aginduaren 2.2.c) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 010-NAT-2020 | Asteasuko Udala | Asteasuerreka ibai-ertzeko haltzadia berreskuratzeko lanak (lehentasunezko habitata, 92/43/CEE Zuzentaraua, 91E0*) (2021 x0013 2022). | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 019-NAT-2020 | Kanpezuko Udala | Kanpezuko udalerrian ibaiertzetako eta ibilguetako hondakinak garbitzeko jarduketak | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 021-NAT-2020 | Durangaldea Urkiola landa garapeneko elkartea | Landa gunean hesi biziak sustatzea 2020-2022 | 4. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak. |
| 026-NAT-2020 | Munitibar - Arbatzegi Gerrikaitz Udala | Motrollo proiektua eguneratzea | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 027-NAT-2020 | Txingudiko Zerbitzuak, S.A. | Ibilgu eta ibaietan hondakinak kentzeko kanpaina - Irun 2021 | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 031-NAT-2020 | Urduñako Udala | San Vitores gunearen balioa nabarmentzeko eta Urduñako onura publikoko mendiko ondare naturala hobetzeko proiektua | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 032-NAT-2020 | Maruri-Jatabeko Udala | Jatabe jasangarria. | Ez du betetzen aginduaren 2.2.c) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 035-NAT-2020 | Vitoria-Gasteizko Udala | «Hortus»: Olarizuko lorategi botanikoko bilduma etnobotanikoa | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 037-NAT-2020 | Pasaiako Udala | Azkuene Goian hiri-baratzeen parkea egiteko proiektuaren lehen fasea gauzatzea | Ez du betetzen aginduaren 2.2.c) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |

EKONOMIA ZIRKULARRAREN LERROA

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 002-EKZ-2020 | Muskizko Udala | Muskizen 5. edukiontzia jartzea | 7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuen mugak. |
| 005-EKZ-2020 | Zizurkilgo Udala | Hondakinen prebentzioa eta emakumeen ahalduntzea Zizurkilen: hilekoaren ondorioz sortutako errefusa murrizteko ekimena | Ez du betetzen aginduaren 2.2.d) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 009-EKZ-2020 | Okondoko Udala | Fibrozementu-hondakinen udal inbentarioa egitea eta hondakin horiek erretiratzea | Ez du betetzen aginduaren 2.2.d) artikulua Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |
| 014-EKZ-2020 | Anoetako Udala | Bertakoa bertatik eta plastikorik gabe | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 017-EKZ-2020 | Abaltzisketako Udala | Eraikuntzako hiri hondakinak apurtu tratatu eta berriro erabiltzea. | Ez du gutxieneko puntuazioa lortu. (Aginduaren 16.1. artikulua). |
| 028-EKZ-2020 | Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea | Berotegi-efektuko gas gutxiago jariatzea Debabarreneko landa-eremuko hondakinen bilketa digitalizatuz. | Ez du betetzen aginduaren 2.2.d) artikulua Diru-laguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak. |